



# **ARABAKO EKONOMIA:** ***Egoeraren adierazleak***

**2024ko Martxoa**

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)





# AURKIBIDEA

|  |           |
|--|-----------|
| <b>1. EKONOMIA INGURUNEA</b>                 | <b>3</b>  |
| <b>2. ARABAKO EKONOMIA</b>                   | <b>7</b>  |
| <b>2.1. KANPO MERKATARITZA</b>               | <b>8</b>  |
| <b>2.2. BENETAKO BARNE PRODUKTU GORDINA</b>  | <b>9</b>  |
| <b>2.3. INDUSTRIA EKOIZPENA</b>              | <b>10</b> |
| <b>2.4. INDUSTRIA EGOERA</b>                 | <b>11</b> |
| <b>2.5. ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA</b>      | <b>13</b> |
| <b>3. LABURPEN TAULA. ADIERAZLE NAGUSIAK</b> | <b>14</b> |



# EKONOMIA INGURUNEA

- Europar Batasuneko eta Euroguneko ekonomiek % 0,3ko hazkunde nabarmena izan zuten 2023. urtean. Europako Batzordearen arabera, familien erosteko ahalmenaren narriatzeak, diruaren doiketa handiak, laguntza fiskalen kentze partzialak eta kanpoko eskaeraren jaitsierak, hazkundera moteltzea ekarri zuten.
- Iazko bigarren seihilekoan atzeraldi teknikoa ozta-ozta saihestu ondoren, EBk 2024ko lehen hiruhilekorako dituen aurreikuspenen arabera, ekonomiak makal jarraituko du.
- Nolanahi ere, Europako Batzordeak joan den otsailean argitaratutako azken aurreikuspenei erreparatuz gero, ekonomia jardura handiagotuz joango da aurten. Inflazioak beherantz jarraitzen duen bitartean, soldata errealean igoerak eta lan-merkatu sendoak kontsumoaren gorakadari eutsi beharko liokete. Irabazien marjinek behera egin badute ere, kredituen baldintzak pixkanaka malgutuko direnez, eta Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa etengabe gauzatuko denez, inbertsioa ere hobetu egingo da. Horrez gain, atzerriko bazkideekin egindako merkataritza normalizatzea aurreikusten da, iaz, oso eskasa izan ondoren. Hazkunderaren erritmoa egonkortzea ere aurreikusten da, 2014ko bigarren seihilekotik 2025eko amaierara arte.
- Batzordeak pixkanakako susperraldia iragartzen du 2024ko bigarren erdialdean, besteak beste, inflazioaren presioa txikiagotuko delako, soldata errealak igotzea aurreikusita dagoelako, eta lan-merkatua sendotuko delako. Horrek, kontsumitzaileen gastua sustatuko du.



# EKONOMIA INGURUNEA

- Europako Batzordearen neguko behin-behineko aurreikuspenen arabera, euroguneko eta EB osoko ekonomiak % 0,8 eta % 0,9 handituko dira hurrenez hurren, 2024an, eta % 1,5 eta % 1,7 2025ean. Horrela, 2023ko udazkeneko aurreikuspenak beherantz berrikusiko dira.
- Inflazioa aurreikusitakoa baino azkarrago motelduko da udazkenean. Kontsumoko prezioen indize harmonizatuaren (KPIH) inflazioa 2023ko % 6,3tik % 3ra eta % 2,5era jaitea aurreikusten da EBn, 2024an eta 2025ean hurrenez hurren. Bestalde, inflazioa, eurogunean, 2023ko % 5,4tik, % 2,7 eta % 2,2ra jaitea aurreikusten da, 2024an eta 2025ean hurrenez hurren.
- Hobera egingo duela ematen badu ere, Europako Batzordeak laster etorriko diren arrisku ekonomikoei begira jarraitzen du. Esaterako, energiari laguntzeko araubideak pixkanaka kenduko dira, tirabira ekonomikoei jarraitzen dute eta ziur asko, Ekialde Ertaineko gatazkak gero eta handiagoak izango dira, Itsaso Gorriko merkataritza-ibilbideetan eragingo dutenak.
- EBko ekonomia guztiek gora egitea aurreikusten da 2024an, hala ere, aldeak nabariak dira. Zenbait ekonomia txikiren BPG % 2 eta % 3 artean handitzea espero da 2024an, ekonomia handiagoen aldean.
- Alemaniako adierazle ekonomikoak kontuan hartuz, jarduera ekonomikoa ahula izango da 2024ko lehen erdian. Ekoizpena % 0,3 txikiagotu zen 2023an, eta 2024an, Alemaniako ekonomia % 0,3 bakarrik igotzea espero da, udazkenean aurreikusi zuten % 0,8aren aldean. 2025erako % 1,2eko hazkundearen aurreikuspena mantentzen da.



# EKONOMIA INGURUNEA

- Frantziako hazkunde aurreikuspenak beherantz berrikusi dira. Horrela, 2024rako hasiera batean aurreikusi zen % 1,2tik % 0,9ra pasa da, eta 2025eko aurreikuspena beherantz ere berrikusi da, % 1,3ra. Italian, beherantz berrikusi da 2024rako aurreikuspena, % 0,7ra, eta 2025ekoa aldaketarik gabe mantendu da, % 1,2an.
- Espainiarako aurreikuspen ekonomikoak aldaketarik gabe mantendu dira, bai 2024rako, bai 2025erako. Hazkundera espero da 2024an eta 2025ean, % 1,7koa eta % 2koa hurrenez hurren. Era berean, inflazioa % 3,2koa izango da 2024an, eta % 2,1ekoa 2025ean. Kontsumo pribatua, eta inbertsioak neurri txikiagoan, izan ziren Espainiak 2023an izan zuen hazkunderaren eragile nagusiak. Halaber, turismo sektorearen bultzada txikiagoak eta merkataritza bazkide nagusien egoera ekonomiko ahulak Espainiako esportazioen dinamismoa mugatzea aurreikusten da.
- Malta da eurogunean hazkunderik handiena aurreikusten duena, % 4,6koa 2024an eta % 4,3koa 2025ean hain zuzen ere. Haren atzetik, Txipre eta Kroazia daude. Eurogunetik kanpo, Errumaniak aurreikusten du hazkunderik handiena: % 2,9koa 2024an. Bestalde, Hungarian, % 3,6ko hazkundera aurreikusten dute 2025ean.
- Estatistikako Institutu Nazionalak aurreratu duen moduan, Espainiako ekonomia % 2,5 hazi zen 2023an, Gobernuak esperotakoa baino hamarren bat gehiago, izan ere, urteko laugarren hiruhilekoan % 0,6 igo zen, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago. Horrenbestez, Espainiako ekonomiak elkarren segidako hirugarren hazkundera izan zuen 2023an. Hala ere, iazkoa,aldi horretako txikiena izan zen: 2021ean, BPG % 6,4 igo zen; 2022an, % 5,8 eta iaz, % 2,5. Azken hiru urteetan egon den hazkundera, koronabirusak eragin zuen BPGaren % 11,2ko jaitsiera historikoaren ondoren gertatu da.



# EKONOMIA INGURUNEA

- Espainiako ekonomiak izan duen bilakaera positiboari esker, zorra/BPG ratioa % 3,9 murriztu da. Administrazio publikoen zorrak jaisten jarraitu zuen 2023an, barne-produktu gordinaren % 107,7ra arte, beraz, % 3,9 jaitsi da 2022ko bukaeraren aldean.
- Espainiako Gobernuak 2023ko urrian argitaratu zituen azken aurreikuspenen arabera, Espainiako ekonomia % 2,4 haztea espero da 2024an. Zor publikoari dagokionez, 2024an BPGaren % 106,3an kokatzea espero da. Era berean, BPGaren defizita % 3koa izatea aurreikusten da 2024rako.
- Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, euskal ekonomiak % 1,8ko hazkunde ekonomikoarekin amaitu zuen 2023. urtea. Horrenbestez, euskal ekonomiaren jarduera moteldu da, 2022an % 5,4 hazi zelako. Nolanahi ere, bilakaerak positiboa izaten jarraitzen du. Hazkunde positiboa izan duen hirugarren urtea da, 2020an koronabirusaren ondorioz izan zuen jaitsiera handiaren ondoren.
- 2024ko martxoan, Eusko Jaurlaritzaren azken aurreikuspenen arabera, EAEko BPGa %1,9 eta %2,1 haziko da, hurrenez hurren. Lan-merkatuan, aurreikuspenen arabera, enpleguaren igoera lanaldi osoko lanpostuetan neurtuta: %1,8 2024an eta %1,6 2025ean.



# ARABAKO EKONOMIA

- Arabako esportazioek 2023an % 8,6ko hazkunde handiarekin bukatu bazuten ere, 2022koa baino nabarmen txikiagoa izan da (% 27,6koa izan zen). Arabako esportazioek hazkunde handiekin jarraitu zuten 2023ko lehen hiletan: lehen hiruhilekoan, % 31,3koa izan zen, hurrengo hiruhilekoetako bako bako nabarmen handiagoa (% 11,1, % 5,2 eta % 1,9 bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoan hurrenez hurren). Esportazioek % 17,5 egin dute behera 2024ko urtarrilean.
- Arabako industria jarduerak, esportazioek bezala, behera egin zuen 2023an, urtea aurrera joan ahala. Arabako industria produkzioaren indizea % 0,5 igo zen urte osoan. Bestalde, 2023ko lehen hiruhilekoan % 4,9 hazi bazen ere, bigarrenean, % 2,1 jaitsi zen, eta hirugarrenean, % 1,7. Urteko azken hiruhilekoan, berriz, % 1 igo zen. Arabako industria produkzioaren indizea % 3,3 jaitsi da 2024ko urtarrilean.
- Eustatek argitaratutako azken aurrerapenaren arabera, Arabako BPG % 1,9 igo zen 2023an aurreko urtearen aldean, eta urtean zehar jaitsiera arina ere izan zuen. Horrela, urteko lehen hiruhilekoan hazkunde ekonomikoa % 2,5ekoa izan zen; bigarren hiruhilekoan % 1,5era jaitsi zen; hirugarrenean, % 2ko igoera izan zuen, eta azken hiruhilekoan, % 1,5era jaitsi zen berriro.
- Arabako inflazio-tasa % 2,5ekoa izan zen 2023aren amaieran, aurreko bi urteetan izandakoa baino nabarmen txikiagoa: % 4,9koa 2022an, eta % 6,8koa 2021ean. Tasak % 2,5ean egonkor jarraitzen du 2024ko otsailean.



# Kanpo Merkataritza


(Urtearteko bariazio tasa)

|                       | 2022  | 2023 (*) | 2024ko metatua (*) | Azken datua (*) | Data         |
|-----------------------|-------|----------|--------------------|-----------------|--------------|
| Esportazioak          | 27,6  | 8,6      | -17,5              | -17,5           | 24-urtarrila |
| Inportazioak          | 32,3  | -1,2     | -15,1              | -15,1           | 24-urtarrila |
| Estaldura Indizea (%) | 156,3 | 171,7    | 200,5              | 200,5           | 24-urtarrila |

**Arabako esportazioek % 8,6ko urtetik urterako hazkundearekin amaitu zuten 2023. urtean, eta inportazioak % 1,2 jaitsi ziren. Esportazioak % 17,5 jaitsi dira 2024ko urtarrilean, eta inportazioak, % 15,1.**

Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Aduanetako Idazkaritza

(\*) Behin-behinekoa








# Benetako Barne Produktu Gordina

Arabako BPGak % 1,9ko urtetik urterako hazkundera izan zuen 2023an. Tasa hori, 2022an izandakoa baino 2,5 puntu txikiagoa izan zen, beraz, iaz dagoeneko ikusi zen jaitsierak jarraitu zuen, inguruko ekonomietan gertatu zen moduan.



Iturria: EUSTAT

(\*) behin-behinekoa




# Industria Ekoizpena

Arabako industria jardueraren hazkundera moteldu egin zen 2023. urtea aurrera joan ahala. Arabako industria produkzioaren indizea % 0,5 igo zen urte osoan, 2022ko % 5,2ko igoeraren aldean.

Industria produkzioaren indizea % 3,3 jaitsi da 2024ko urtarrilean.

IEA. Urterako hazkundera






# Industriaren Egoera

2023ko laugarren hiruhilekoari dagokion industriaren egoerari buruzko inkesta 2024ko urtarrilean zehar egin zen, eta horren arabera, urteko laugarren hiruhilekoan, ekoizpen jarduera garbia aurreko hiruhilekoan baino handiagoa izan zen. Hala ere, barne eskaerak batik bat eta lehengaiak eta eskulan espezializatua hornitzeko zailtasunak, ekoizteko ahalmena gehiago erabiltzea eragotzi zuten.


Epe laburrerako aurreikuspenen arabera, bai produkzioak, bai salmentek, gora egingo dute, eta egonkortasuna nagusi izango da eskari zorroetan, esportazioetan eta enpleguan.

Arabako industriaren konfiantzaren adierazlea





# (BPG ETA IEA) BILAKAERA



|                | 2021 |      |     |     | 2022 |     |     |     | 2023 |      |      |      |
|----------------|------|------|-----|-----|------|-----|-----|-----|------|------|------|------|
|                | I    | II   | III | IV  | I    | II  | III | IV  | I    | II   | III  | IV   |
| <b>ARABA</b>   |      |      |     |     |      |     |     |     |      |      |      |      |
| <b>BPG</b>     | -2,5 | 20,9 | 3,9 | 4,4 | 5,7  | 5,0 | 4,0 | 2,8 | 2,5  | 1,5  | 2,0  | 1,5  |
| <b>IEA</b>     | -1,6 | 32,6 | 2,8 | 3,0 | 6,0  | 9,1 | 3,7 | 2,1 | 4,9  | -2,1 | -1,7 | 1,0  |
| <b>EAE</b>     |      |      |     |     |      |     |     |     |      |      |      |      |
| <b>BPG</b>     | -3,0 | 18,7 | 4,9 | 5,5 | 7,2  | 6,5 | 4,8 | 3,4 | 2,4  | 1,5  | 1,7  | 1,7  |
| <b>IEA</b>     | -0,6 | 32,7 | 7,0 | 6,4 | 8,0  | 7,4 | 4,2 | 3,3 | 1,9  | -1,8 | -0,7 | 1,3  |
| <b>ESTATUA</b> |      |      |     |     |      |     |     |     |      |      |      |      |
| <b>BPG</b>     | -3,6 | 19,4 | 5,1 | 7,0 | 6,8  | 7,2 | 5,4 | 3,8 | 4,1  | 2,0  | 1,9  | 2,0  |
| <b>IEA</b>     | 2,8  | 26,0 | 1,7 | 1,7 | 1,4  | 5,6 | 3,8 | 0,0 | 1,3  | -2,7 | -3,1 | -1,0 |


Fuente: Eustat eta INE.



# Erregistratutako Langabezia

Arabako langabezia % 0,12 jaitsi da otsailean, 22 pertsona gutxiago baitaude langabezian. Horri esker, guztira, 18.902 langabe daude, otsail baten mailarik baxuena dena 2009tik. Aurreko urtearen aldean, langabezia % 3,90 jaitsi da, 767 pertsona gutxiago.

Sektoreka, Araban, langabeziak behera egin du eraikuntzan eta zerbitzuetan. Iazko hilabete berarekin alderatuz gero, langabeziak behera egin du sektore guztietan, lehenago lanik gabe zeudenen taldean izan ezik.





# Laburpen Taula. Adierazle Nagusiak

|                                    | (Urtearteko bariazio tasa) (%) |      |                |             |              |
|------------------------------------|--------------------------------|------|----------------|-------------|--------------|
|                                    | 2022                           | 2023 | 2024ko metatua | Azken datua | Data         |
| <b>BPG</b>                         |                                |      |                |             |              |
| Estatua                            | 5,8                            | 2,5  |                |             | 23-IV Hi     |
| EAE                                | 5,4                            | 1,8  |                |             | 23-IV Hi     |
| Araba                              | 4,4                            | 1,9  |                |             | 23-IV Hi     |
| <b>IEA</b>                         |                                |      |                |             |              |
| Estatua                            | 2,7                            | -1,4 | 0,1            | 0,1         | 24-urtarrila |
| EAE                                | 5,7                            | 0,2  | 1,3            | 1,3         | 24-urtarrila |
| Araba                              | 5,2                            | 0,5  | -3,3           | -3,3        | 24-urtarrila |
| <b>KPI</b>                         |                                |      |                |             |              |
| Estatua                            | 5,7                            | 3,1  |                | 2,8         | 24-otsaila   |
| EAE                                | 5,4                            | 3,1  |                | 3,1         | 24-otsaila   |
| Araba                              | 4,9                            | 2,5  |                | 2,5         | 24-otsaila   |
| <b>ESPORTAZIOAK</b>                |                                |      |                |             |              |
| Estatua                            | 23,1                           | -1,0 | -2,5           | -2,5        | 24-urtarrila |
| EAE                                | 25,8                           | -0,3 | -12,7          | -12,7       | 24-urtarrila |
| Araba                              | 27,6                           | 8,6  | -17,5          | -17,5       | 24-urtarrila |
| <b>ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA</b> |                                |      |                |             |              |
| Estatua                            | -8,6                           | -4,6 |                | -5,2        | 24-otsaila   |
| EAE                                | -3,5                           | -2,7 |                | -1,6        | 24-otsaila   |
| Araba                              | -2,1                           | 0,3  |                | -3,9        | 24-otsaila   |

|  | Datu absolutuak (%) |      |  |      |          |
|--|---------------------|------|--|------|----------|
| <b>LANGABEZI TASA EPA Inkesta (INE)</b>    |                     |      |  |      |          |
| Estatua                                    | 12,9                | 12,1 |  | 11,8 | 23-IV Hi |
| EAE  | 8,6                 | 7,6  |  | 6,3  | 23-IV Hi |
| Araba                                      | 8,8                 | 6,8  |  | 5,0  | 23-IV Hi |
| <b>LANGABEZI TASA BJA Inkesta (EUSTAT)</b> |                     |      |  |      |          |
| EAE  | 8,5                 | 7,6  |  | 7,0  | 23-IV Hi |
| Araba                                      | 9,5                 | 7,8  |  | 7,6  | 23-IV Hi |